Zarauzko Udala
Zbk./ Nº 2024-5407
Data / Fecha 2024/04/17 12:14
Sarrera / Entrada

euskal trenbide sarea

2024 API. ABR. 11
SARRERA/ENTRADA Zk. | IRTEERA / SALIDA Zk. 356

**Dª IRATXE GARCÍA DE VICUÑA ELGUEA ANDREA**
Bulego Teknikoaren Arduraduna / Responsable de Oficina Técnica
**ZARAUZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ**
Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentua
Departamento de Obras Públicas, Infraestructuras y Servicios
Zigordia Kalea, 13
**20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA)**

Andre agurgarria:

Estimada Sra.:

2024ko martxoaren 22an, zure gutuna sartu zen Euskal Trenbide Sarean. Gutun horren bidez, Salbatore Mitxelena-Zelai Auzo Elkarteak egindako eskaera jakinarazten diguzu, erakunde honek neurriak har ditzan udalerriko inguru horretatik igarotzen diren trenbideetako trenak ateratzen duen zarata gutxitzeko.

Con fecha 22 de marzo de 2024, tiene entrada en Euskal Trenbide Sarea, su misiva a través de la cual pone en nuestro conocimiento la solicitud de la Asociación de vecinos de Salbatore Mitxelena-Zelai, para que desde este ente se tomen las medidas correspondientes para aminorar el ruido de paso del tren por las vías que discurren por esa zona del municipio.

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuarekin eta ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentarauarekin bat etorriz, ETSk Zarata-mapa Estrategikoak eta Zarata-mapak berrikusi eta eguneratu zituen, eta lehenak Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko azaroaren 25eko Ebazpenaren bidez, eta Zarata-mapak Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez onartu ziren.

Conforme al Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de la Directiva 2002/49/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación y gestión del ruido ambiental, ETS revisó y actualizó los Mapas Estratégicos de Ruido y los Mapas de Ruido, siendo los primeros aprobados mediante Resolución de la Directora de Infraestructuras del Transporte con fecha 25 de noviembre de 2022, y los Mapas de Ruido fueron aprobados mediante Resolución de la Directora de Infraestructuras del Transporte el 22 de enero de 2024.

Zarata-mapen berrikuspenaren ondorioz, Ekintza-planaren 4. Fasea berrikusi da. Plan horrek, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen bezala, biztanleriari eragiten zaion kaltearen arabera definitzen ditu Lehentasunezko Jarduketa-eremuak

Como consecuencia de la revisión de los Mapas de Ruido se ha realizado la revisión del Plan de Acción 4ª Fase, que tal y como establece la normativa vigente, define Zonas de Actuación Prioritaria en función de la afección a la población.

Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 21eko 6/2004 Legean bitartez sortutakoa. NR.: S-0100001 - Creado por Ley del Parlamento Vasco 6/2004 de 21 de Mayo

euskal trenbide sarea

Une honetan, Ekintza-planaren 4. Fasea onarpen prozesuan dago bete-betean, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezartzen dituen jarraibideei jarraituz.

Zarata Mapen eta Ekintza Planaren berrikuspenak eta eguneratzeak gure linea guztietako hots-eraginaren berri ematen digu, bai eta inpaktu akustiko handieneko puntuetan ezarri beharreko neurri zuzentzaileen berri ere, biztanleengan duen eraginaren araberako lehentasun-ordena ezarriz.

Zure gutunaren xede den eremua Lehentasunezko Jarduketa Eremuetako bat da; beraz, biztanleriari gehien eragiten dioten jarduketei ekin ondoren, Ekintza Planean ezarritako lehentasun-ordenari jarraituz, dagozkion neurri zuzentzaileak zehaztu eta egingo dira aztergai dugun eremuan.

Irizpide hori eta ez beste bat jarraitu da beste udalerri batzuetan hots-kutsaduraren arloan egindako jarduketetan, betiere une horretan indarrean dagoen Ekintza Plana betez.

Merezi du adieraztea Bilbo-Donostia linea XIX. mendekoa dela, interesatuak bizi diren eraikinak baino lehenagokoa.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko egungo araudia erreferentziatzat hartuta (urriaren 16ko 213/2012 Dekretua), trenbide-lineetarako hots-zortasuneko eremu bat mugatzea aurreikusten da. Eremu horren barruan, immisioek aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak gainditu ahal izango dituzte, eta erabilera edo/eta jarduera jakin batzuetarako murrizketak ezarri ahal izango dira.

En estos momentos el Plan de Acción 4ª Fase se encuentra en pleno proceso de aprobación siguiendo las directrices que establece el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La revisión y actualización de los Mapas de Ruido y el Plan de Acción nos da a conocer la afección acústica en todas nuestras líneas, así como las medidas correctivas a establecer en los puntos de mayor impacto acústico, estableciendo un orden de prioridad de actuación en función de la afección a la población.

La zona objeto de su carta está incluida como una de las Zonas de Actuación Prioritaria, por lo tanto, una vez abordadas las actuaciones con mayor afección a la población siguiendo el orden de prioridad establecido en el Plan de Acción, se definirán y realizarán las medidas correctoras que correspondan en la zona que nos ocupa.

Este y no otro, es el criterio que se ha seguido en las actuaciones realizadas en materia de contaminación acústica en otros municipios, siempre en cumplimiento del Plan de Acción vigente en ese momento.

Es meritorio enunciar que la línea Bilbao-Donostia, data del siglo XIX y es anterior a las edificaciones de residencia de los interesados.

En este sentido, tomando como referencia la actual normativa de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Decreto 213/2012, de 16 de octubre), se contempla la delimitación de una zona de servidumbre acústica para las líneas ferroviarias, dentro de las cuales las inmisiones podrán superar los objetivos de calidad acústica aplicables y donde se podrán establecer restricciones para determinados usos y/o actividades.

euskal trenbide sarea

Zortasun akustikoko eremu horiek mugatzearen ondorioek berekin dakarte eremu horretan garapen bat egin nahi duten pertsonek edo erakundeek eragin akustikoaren azterketa bat egin behar dutela, eta azterketa horren ondorio direla hartu beharreko prebentzio akustikoko neurriak.

Los efectos de la delimitación de esas zonas de servidumbre acústica implican que sean las personas o entidades que quieran acometer un desarrollo en dicha zona las que deben efectuar un estudio de impacto acústico, del que resulten las medidas de prevención acústica que hayan de adoptar.

Nolanahi ere, nabarmendu nahi dugu, adierazitako kexaren funtsarekin duen loturagatik, ETSren Ingurumen Adierazpenaren arabera, erakunde horrek bere jarduerak ingurumena babesteko ahalik eta errespetu handienarekin gauzatzeko konpromisoari eusten diola, bere jarduera ahalik eta inpaktu txikienarekin gauzatuz eta eragin hori murrizteko ahal den guztia eginez.

En cualquier caso, queremos poner de relieve, por su conexión con el fondo de la queja manifestada, que conforme la Declaración Ambiental de ETS, dicho Ente mantiene el compromiso de desarrollar sus actividades con el máximo respeto hacia la protección del medio ambiente, llevando a cabo su actividad con el menor impacto posible, así como haciendo todo lo posible para disminuir dicho impacto.

ETSren Ingurumen-adierazpenak barne hartzen du Batzordearen 2019/61 (EB) Erabakia, 2018ko abenduaren 19koa, ingurumen-kudeaketako hobekuntza praktikoei, ingurumen-portaeraren adierazle sektorialei eta administrazio publikoaren sektorerako bikaintasunaren parametro konparatiboei buruzko erreferentziazko dokumentu sektorialari buruzkoa.

La Declaración Ambiental de ETS incluye la Decisión (UE) 2019/61 de la Comisión, de 19 de diciembre de 2018, relativa al documento de referencia sectorial sobre las mejoras prácticas en la gestión ambiental, los indicadores sectoriales de comportamiento ambiental y los parámetros comparativos de excelencia para el sector de la administración pública.

Besterik gabe, jaso ezazu agur bero bat,

Sin otro particular, reciba un cordial saludo,

Cristina López Fernández
2024.04.11 13:25:28 +02'00'

Izenp./Fdo: CRISTINA LÓPEZ FERNÁNDEZ
I+G+b, Kalitate eta Ingurumen Zuzendaria
Directora de I+D+i, Calidad y Medio Ambiente

DICMA/AYT

EKS | CSV: SIER6ac032eb-67cf-456e-a9a4-9fb4ca7f96bf
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910

EKS | CSV: JAKIf53a1de3-36ed-466b-9ac6-3ac2c4380dd6
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910